

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ILEAREN KOLOREA ALDATZEKO KOSMETIKOAK ERABILTZEA	Iraupena	80
Kodea	MF0060_1		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketako zerbitzu osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Higienea eta asepsia ile-apainketan (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Forma aldatzeko eta orrazten hasteko muntaketak		90
	Ile-apainketako zerbitzu osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0060_1: ILEA KOLOREZTATZEKO ETA DEKOLORATZEKO TEKNIKAK ERABILTZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Ilean kosmetiko koloratzaileek eta dekoloretzaileek dituzten efektuak eta kolorea aldatzeko erabiltzen diren teknikak aztertzea.
- EI1.1 Ilean kolorazio naturala eta tonu-eskala azaltzea.
- EI1.2 Ilean koloratzaileak sailkatzea izaeraren arabera, emaitzaren iraupenaren arabera eta konposizio orokorraren arabera.
- EI1.3 Produktu kosmetikoen konposizio orokorra eta haien printzipio aktiboek ilearen kolore-aldaketan duten jarduera-mekanismoa azaltzea.
- EI1.4 Ilean kolorazio- eta dekoloretzaile-mota bakoitzaren helburua deskribatzea.
- EI1.5 Ilean kolorea aldatu aurreko eragiketa teknikoak azaltzea.
- EI1.6 Erreakzio-motak identifikatzea eta teknikari arduradunari jakinaraztea, hortik aurrera produktu egokiak aplikatzeko.
- A2: Ilean kolorea erabat, partzialki, aldi baterako edo iraunkorki aldatzeko teknikak aplikatu aurretik, bezeroa prestatzea, babestea eta eseraraztea.
- EI2.1 Bezeroa jarrera higieniko egokian jartzea eta behar den janzkerarekin babestea.
- EI2.2 Bezeroaren larruzala babestea, narritadurak edo orbanak saihesteko.
- EI2.3 Produktu koloratzaileetatik eta dekoloretzaileetatik babestea behar diren jantzi eta/edo osagarrien bidez.
- A3: Kolorea aldatzeko produktuarekiko tolerantzia-proba egitea.
- EI3.1 Tolerantzia-proban bezeroa eta profesionala babesteko erabiltzen diren ekipoak eta hartzen diren neurriak deskribatzea.
- EI3.2 Kolorea aldatzeko produktuarekiko tolerantzia-maila egiaztatzeko prozesua deskribatzea.
- EI3.3 Tolerantzia-proba egiteko kasu praktiko batean:
- Bezeroa prestatzea eta egin behar zaion probaren berri ematea.
 - Lehenengo tindaketan edo aplikaziotik tarte bat igarotakoan emaitzak egokiak diren ala ez egiaztatzea.
 - Datuak fitxa teknikoan jasotzea.
- A4: Ilean kolorea aldatzeko behar diren eragiketa teknikoak trebetasunez egitea, segurtasun- eta higiene-neurri egokiak aplikatuz.
- EI4.1 Kolore-aldaketako zerbitzuetan bezeroa eta profesionala babesteko erabiltzen diren ekipoak eta hartzen diren neurriak deskribatzea.
- EI4.2 Kosmetiko koloratzaileak eta dekoloretzaileak fabrikatzailearen eta teknikari arduradunaren argibideei jarraituz aplikatzeko nahaste egokiak nolakoak diren azaltzea.
- EI4.3 Produktuak aplikatzeko modua deskribatzea, eta, lortu nahi diren emaitzen arabera, modu hori ilearen kolorea aldatzeko teknikekin erlazionatzea.
- EI4.4 Ile-kolorea aldatzeko kasu praktiko batean:
- Bezeroa produktu kosmetikoen eraginetik babestea, dagozkion jantziak eta osagarriak erabiliz.
 - Produktuarekiko sentikortasunaren proba egitea bezeroari.
 - Ilean mota eta egoera eta tolerantzia-maila aztertzea, arduradunaren argibideei jarraituz.
 - Produktua prestatzea teknikari arduradunaren argibideei jarraituz.

- Kolorazio edo dekolorazio totala, partziala, iraunkorra edo aldi baterakoa egiteko kosmetiko egokiak ilearen premien arabera aplikatzea.
- Ileanen kolorazio- edo dekolorazio-prozesua zaintzea, eta, beharrezkoa izanez gero, esposizio-denborak aldatzea, teknikari arduradun batek gainbegiratuta.

EI4.5 Bezeroaren gogobetetze-maila ezagutzeko galderak egitea, bai jasotako arretari buruzkoak, bai eskaintako zerbitzuari buruzkoak.

Edukiak

1. Ileanen kolorazioa eta dekolorazioa.

- Ileanen kolore naturala: melanina-motak.
 - Pigmentu naturalak: motak eta efektuak.
 - Ile-kolorean eragiten duten faktoreak.
 - Aldaketak ilearen kolorazioan.
- Ileanen kolore-aldaketak eta aldaketen oinarriak.
 - Tonua eta tonu-eskala.
 - Ezaugarriak: tonalitatea, distira, asetasuna.
- Kolorazio kapilarra.
- Dekolorazio kapilarra.

2. Kolorazio eta dekolorazio kapilarrerako kosmetikoak:

- Ile-kolorea aldatzeko kosmetikoen sailkapena konposizio orokorraren arabera. Produktu oxidatzaileak. Produktu koloratzaileak. Geruzak kentzeko produktuak eta dekoloratzaileak. Produktu kosmetiko babesleak.
- Aukeratzeko irizpideak, eta behar bezala erabiltzeko, aplikatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak.
- Produktu koloratzaileen eta dekoloratzaileen jarduera-mekanismoak.
- Kolore-aldaketan erabilitako kosmetikoekiko sentikortasun- eta tolerantzia-proba: Proba egiteko baldintzak eta jarraibideak, eta emaitzen azterketa.

3. Kolorazio- eta dekolorazio-tekniken aplikazioa

- Kolore-aldaketak eta exekuzio teknikoak:
 - Ilea koloratu aurretiko teknikak: finkatzea eta aurrez pigmentatzea.
 - Aldi baterako koloratzaileak aplikatzeko teknikak.
 - Koloratzaile erdiiraunkorrak aplikatzeko teknikak.
 - Oxidazio-koloratzaileak edo iraunkorrak aplikatzeko teknikak: partziala edo totala.
 - Dekoloratzaileak aplikatzeko teknikak: partziala edo totala.
- Ile-kolorazioa aldatzeko prozesuan erabiltzen diren tresnak, aparatuek eta osagarriak:
 - Airearekin edo aierik gabe beroa sortzeko aparatuek: infragorriak, lehorgailuak eta abar.
 - Hautespen-jarraibideak.
 - Zuzen erabili, kontserbatu eta mantentzeko jarraibideak.
 - Segurtasuna eta higiena, kolorea aldatzeko prozesuetako aparatu elektrikoak erabiltzean. Aparatuak berrikustea: entxufeak, kableak, konexioak.
- Ileanen kolore-aldaketan arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak. Jantzera. Lanerako jarrera higieniko egokiena.
- Ileanen kolore-aldaketan bezeroa babesteko neurriak. Jantzera.
 - Ileanen kolorea aldatzeko prozesuetarako gomendatutako jarrera higienikoa.
 - Ileanen kolore-aldaketan produktu kosmetikoekiko sentikortasunaren proba.

4. Kolore-aldaketako prozesuaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola.

- Azazkaletako makillajea kentzeko teknika:
- Ileanen kolore-aldaketako zerbitzuetako kalitatearen kontzeptua, ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Ileanen kolore-aldaketaren zerbitzuan kalitatea definitzen duten parametroak.
- Kalitatea ilearen kolore-aldaketaren zerbitzua aplikatzean eta saltzean.
- Ileanen kolore-aldaketaren zerbitzuak eskaintzean lortutako emaitzak baloratzea eta gertatutako desbideratzeak zuzentzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketako zerbitzu osagarriak.